

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA

DIREN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO
ERAKUNDEEN ARTEKO JARDUKETA
ETA KOORDINAZIO

I. PROTOKOLOA



EDUKIA

SARRERA	3
1. ZIOEN AZALPENA.....	6
2. AKORDIOAK	7
3. LEGE-ESPARRUA	9
4. TERMINOLOGIA-ESPARRUA.....	12
5. PRINTZIPIO GIDARIAK, IRIZPIDEAK ETA GIDALERROAK	15
6. ZEHARKAKO ALDERDIAK.....	19
6.1.1. Harrera, entzute aktiboa eta harmonia	19
6.1.2. Baimen informatua eta datuak lagatzea	19
6.1.3. Bide-laguntza, koordinazioak eta jarraipena.....	20
7. DERION INDARKERIA MATXISTAKO KASUETAN JOKATZEKO PROZEDURAK..	22
7.1. SARTZEKO GUNEAK: SARBIDEAK ETA DETEKZIO-ZERBITZUAK	22
7.2. ARRETA-ZERBITZUEN EGINKIZUNAK.....	23
Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ).....	23
Polizia-eremua (Udalzaingoa eta Ertzaintza	25
Osakidetza	26
Ikastetxeak	28
Derioko Udalaren Kultura Atala.....	30
7.3. LARRIALDI-EGOERA.....	31
7.4. PRESAZKO EGOERA	33
7.5. LEHENTASUNEZKO ARRETA JARRAITUA.....	38
7.6. SEXU-ERASOEN KASUETAN ARRETA EMATEA	42
7.6.1. Duela gutxiko sexu-erasoetan arretea ematea (240 ordu/10 egun).....	42
7.6.2. Duela gutxikoak ez diren sexu-erasoetan arretea ematea (10 egun baino gehiago igaro direnean).....	43
8. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA.....	45
8.1. KOORDINAZIO TEKNIKOKO MAHAIA.....	45
8.2. DATU-BILKETA ETA TXOSTENA	47
1. ERANSKINA. BESTELAKO BALIABIDEAK ETA PRESTAZIOAK	49
2. ERANSKINA. ZERBITZU BAKOITZEKO ARDURADUNEN DIREKTORIOA.....	51
3. ERANSKINA. DATU PERTSONALAK LAGATZEKO BAIMENA.....	52



SARRERA

Azken urteetan, indarkeria matxisten aurkako borroka garrantzi handia hartu du agenda publikoan, mundu osokoan nahiz tokian tokikoan. Legeetan egindako aurrerapenen, gizarte-mugimenduen eta gizartearen sentsibilizazio gero eta handiagoaren ondorioz, problematika hau ikusarazteaz gainera biktimei bide-laguntza oso-osoa eta erreparazioa ematea bermatuko duten mekanismo eraginkorrak ezarri behar dira. Esparru horretan, toki-administrazioek eginkizun giltzarria dute, eta genero-indarkeriei erantzuteko lehenengo katebegia dira.

Derioko Udalak, errealitate horretaz jakitun, modu aktiboan aritu da lanean indarkeria matxistak prebenitu, detektatu eta artatzen laguntzeko politikak eta protokoloak sortzen, bat etorrita nazioarteko, Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiekin. Dokumentu hau konpromiso horren erakusgarria da, erakundeen arteko ahaleginak antolatzea eta biktimen premiei erantzun oso eta egokia ematea baitu xede.

Deriok eskarmentua du indarkeria matxistak prebenitu eta artatzeko ekintzak eta neurriak garatzen. Jarduketa horietako batzuk Txorierriko Mankomunitateak ezarritakoaren zati dira, hala nola Txorierriko Berdintasunerako Planaren (2024-2027) eta Indarkeria sexistari buruzko gazteen pertzepzioa Txorierriko Mankomunitatean (2014) diagnostikoaren parte. Mankomunitatean ezarritakoaz gain, Derioko Udalak udalerrirako mekanismo eta dokumentu espezifikoak dauka; adibidez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2018-2021) eta Derioko udalerriko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren diagnostikoa.

Derioko Udalaren indarkeria matxisten biktima diren emakumeei arreta emateko erakundeen arteko I. Jarduketa eta Koordinazio Protokoloa, bada, Udalak eta udal-langileek etengabe hobetzeko duten interes eta konpromisoaren emaitza da. Hori dela eta, indarkeria hori prebenitu, detektatu, artatu eta desagerrarazteko bidea jarriko duen jarduketa-esparru komun bat ezartzea du helburu, biktimen premiei erantzun eraginkor eta egokia ematea bermatzeko.


Dokumentuak nazioarteko, Estatuko eta autonomia-erkidegoko lege-esparruetan du oinarria, eta arreta berezia jartzen die azken urteetan onetsitako zenbait legeri, zuzenean eragiten dutelako indarkeria matxisten

arloko arretan eta koordinazioan. Era berean, protokoloak Derioko udalerrriaren funtzionamendu-berezitasunei heltzen die, errealista izan eta, halaber, udalerriko errealitatera egokituta egon dadin.

Protokoloa egiteko prozesua oso garrantzitsua izan da, Koordinazio Mahaiko kideen artean elkarreraginean aritzeko eta informazioa trukatzeko aukera eman baitu. Prozesuak, dokumentua bera egiteaz gainera, bilerak eta prestakuntza-ekintzak ekarri ditu, bai egitura eta gune komun oinarriak finkatzeko, bai hobetzeko arloak edota etorkizunean egongo diren prestakuntza-premiak hautemateko.

Hori guztia kontuan hartuta, protokolo hau egin izana bera aurrerapausoa izan da hala indarkeria matxista prebenitzeko eta biktimei arreta emateko udal-politikan, nola arreta ematen duten udal-langileentzako prestakuntza etengabea.

Protokoloak **lau urteko** indarraldia izango du; aldi hori bukatzen denean, baina, beste lau urtez luzatu ahalko da.



2024ko azaroa

Derio, 2024ko azaroa

Honako hauek bildu dira:

Derioko Udala




Osakidetza - Uribeko ESia



Erandioko Ertzain-etxea



Derioko ikastetxeak



1. ZIOEN AZALPENA

- ✓ Emakumeen aurkako indarkeria matxistak emakumeak ditu jopuntu, **emakume izate eta emate hutsagatik**, jokaerak eta adierazpenak edozein izanik ere, eta **giza eskubideak urratzen ditu**, larri urratu ere.
- ✓ Emakumeen aurkako indarkeria matxistak, hala, emakumeen eta gizonen arteko harremanetan **desberdinkeria hierarkikoari** eustearen ondoriozko botere-harremanak errepikatzen eta iraunarazten ditu: botere-harreman horietan, emakumeak mendeko tokian daude.
- ✓ Emakumeen aurkako indarkeria matxistak, baina, **komunitate osoari eragiten dio**. Biktimen ingurune hurbilenetik hasi (seme-alabak —baldin badaude—, senideak, lagunak, hurbilekoak, bikotekide berriak eta abar) eta auzora eta komunitate osoraino. Jarduketek, beraz, indarkeriaren ondorioak pairatzen dituzten horiek ere bildu behar dituzte.
- ✓ Emakumeen aurkako indarkeria matxista **osasun publikoko arazoa** da, biktimek jasaten dituzten kalteek sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko, sozial, sozioekonomiko edo ondareari dagokiona baitakarte. Bada, sufrimendu horiek, multzoan hartuta, indarkeria matxistaren zuzeneko biktimen, indarkeria horren eraginpeko biktimen eta biktima bikarioen osasuna hondatzen dute.
- ✓ Indarkeria matxistak, emakumeez gain, jomuga ditu **sexu/genero/sexualitate** sistema nagusian ezarritako arauen arabera jokatzeko edo hitz egiten ez dutenak edo, oro har, sistema horretan tokirik ez dutenak; izan ere, sexu/genero/sexualitate sistema gailenak genero- eta sexu-binarismoa ezartzen du, eta LGTBIQA+ pertsonen eta kolektiboen aniztasuna baztertzen.
- ✓ Protokolo honek etengabe hobetzeko bokazioa dauka: ez da dokumentu itxi bat, eta, beraz, protokoloa koordinatzeko eta jarraipena egiteko prestatzen diren eremuetan **hautematen diren premietara egokitzen** joango da.

2. AKORDIOAK

LEHENENGOA: Entitate parte-hartzaileek protokolo hau sinatzea, protokoloa ezartzeko benetako konpromisoa dutela erakusteko.


BIGARRENA: Entitate sinatzaileek Koordinazio Mahaian eguneratuko dituzte protokolo honen prozedurak, eta jarraitutasuna emango diete; Koordinazio Mahaian, bada, udaleko Gizarte Zerbitzuek, Udaltzaingoak, Berdintasun Arloak eta Kultura Arloak hartuko dute parte, baita autonomia-erkidegoan eskumena daukaten hauek ere: Ertzaintzak, Osakidetzak eta ikastetxeek.

HIRUGARRENA: Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) VII. kapituluaren III. tituluaren ezarritako xedapen orokorren jarraibideak betetzea, hau esaten baitute: «Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitu, hari kontra egin, erreparatu eta ezabatzeko xedea duten politikak berdintasun-politiken esparruan kokatu behar dira, eta EAEko administrazio publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumena duten organoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, lidergoaz eta koordinazio orokorraz arduratu behar dute».

LAUGARRENA: 1/2003 Legegintzako Dekretuaren 60.5 artikularekin bat, koordinazio-guneak sustatzea zerbitzu sozialen eremuan eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan eskumenak dituzten organoen artean, errazago izan dadin arreta-ereduak elkarrekin definitzea, esku-hartzean genero-ikuspegia sartzea eta lankidetzeta-mekanismo egonkorrak sortzea, arreta hobetze aldera.


BOSGARRENA: Biktima bizirauleekin esku hartzeko orduan zuzenean eragiten duten lege-aldaketetara etengabe egokitzeko eguneraketak egitea eta prestakuntza etengabea sustatzea.

SEIGARRENA: Esku-hartzea etengabe hobetzeko lan egitea eta indarkeria matxistaren biktimaren biktimaren kontzeptua zabaltzea. Horretarako, LGTBIQA+ kolektiboetako pertsonen kontrako indarkeria ere aintzat hartuko duten prestakuntza espezifikoak eskainiko dira indarkeria matxistaren, arretaren eta esku-hartzeen arloetan.



ZAZPIGARRENA: Udalerrian indarkeria matxistaren biktima diren haurren, nerabeen, emakumeen eta LGTBIQA+ kolektiboko kideen kopurua erregistratzea, ahalik eta ondoen jakin dezagun zer motatako biztanleak diren kaltetuak eta, era berean, laguntza eskatzeko prozesuan zer premia eta zailtasun dauzkaten.

ZORTZIGARRENA: Indarkeria matxistaren detekzioan, prebentzioan eta arretan zuzenean edo zeharka lan egiten duten langileen artean protokolo honen edukiak zabaltzea.



3. LEGE-ESPARRUA

Azken urteetan indarkeria matxistaren arloko lege-eremuan izandako gehikuntza- eta aldaketa-esparruan egin dugu lehenengo protokolo hau.

Testuinguru horretan eta **emakumeen aurkako indarkeriaren** arloan, lege-esparrua arau hauetan garatzen da:

- a) Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitu eta haien aurka borrokatzeko dena (Istanbulko Hitzarmena), 2011ko maiatzaren 11koa; Espainiako Estatuak 2014ko apirilaren 11n berretsi zuen, eta, 2014ko abuztuaren 1ean, indarrean jarri zuen.
- b) 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- c) 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzkoa.
- d) 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Ituna garatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- e) Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Berdintasunaren aldeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez genero-indarkeriaren egoerak egiaztatzeari buruzko 2021eko azaroaren 11ko Akordioa argitaratzen baita, Berdintasunerako Biltzar Sektorialarena.
- f) 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- g) 4/2018 FORU ARAUA, ekainaren 20koa, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa (Bizkaia).
- h) EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioa (2023).

Bestetik, **emakume atzerritarren aurkako indarkeriaren** eremuan, legedi hau dago:

- a) 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzkoa.
- b) 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko estatuetakoa eta Europako Esparru Ekonomikoaren inguruko Akordioa osatzen duten beste estatu batzuetako herritarrek Espainian sartu, aske zirkulatu eta bizilekua izateari buruzkoa.
- c) 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak onetsia.

Adingabeak babesteko eremuan:

- a) 8/2015 Legea, uztailaren 22koa, Haur eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena; azken xedapenetako hirugarrenak abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren (genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoaren) aldaketa ezartzen du.
- b) 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Erabat Babesteari buruzkoa.
- c) 2/2024 Legea, otsailaren 25ekoa, Haur eta Nerabeei buruzkoa (EAE).

LGTBIQA+ kolektiboetako pertsonen eskubideen esparruan:

- a) Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2000). 21. artikulua diskriminaziorik eza arautzen du.
- b) 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.
- c) 14/2019 Legea, ekainaren 27koa, ekainaren 28ko 14/2012 Legea (transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa) aldatzen duena.
- d) 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, transexualen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko dena.
- e) 234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen administrazio-dokumentazioari buruzkoa.

Amaitzeko, lege-esparru horren arabera, bat etorrita abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoarekin (*genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoarekin*), bikotekidearen edo bikotekide ohiaren zuzeneko indarkeria jasaten duten **emakumeen eskubideak** ezartzen dira.

Hona hemen jendaurreko salaketen tratamenduari buruzkoak:

- Informaziorako eskubidea.
- Erasotzailearen aurrean ez deklaratzeko eta segurtasuna eta ongizate emozionala bermatzeko bitarteko guztiak erabiltzeko eskubidea.
- Gauza itzultzeko¹, kaltea konpontzeko eta eragindako kalte-galeren ordaina jasotzeko eskubidea.
- Duintasuna eta intimitatea babesteko eskubidea.



¹ Zuzenbidean, "gauza" harreman juridiko baten objektua da, zeinaren subjektua pertsona bat edo gehiago baitira. Maila juridikoan, betebeharrak, eskubideak eta ondasunak "gauzak" dira.

4. TERMINOLOGIA-ESPARRUA

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptuak erreferentzia egiten die sexu-genero-sexualitate sistema baztertzailaren bidez eraikitzen den **gizarte-antolamenduaren arabera ezartzen diren kontrol-adierazpen eta botere-erabilera biolentoei, moldea edozein dela ere. Sistema binario horrek emakume femeninoak eta gizon maskulinoak baino ez ditu onartzen, eta gorputzen, identitateen eta genero-rol eta -adierazpenen aniztasuna baztertzen du, eta hierarkikoa da; izan ere, gizon maskulino heterosexualak hartzen ditu "normala" eta "gailena" den horren neurritzat, eta gainerako pertsonen gainean eraikitako pribilegio-sistema bat esleitzen die, indarkeria gainerako pertsona horiek kontrolatzeko tresna izaki.**

Hona hemen indarkeria matxistaren inguruko eskema bat, laburpen modura:

INDARKERIA MATXISTAK

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA/INDARKERIA SEXISTA

Genero-indarkeria Bikotekidea edo bikotekide ohia (gizona), bikote heterosexualaren esparruan

Emakumeen aurkako etxeko indarkeria Bizikidetzaren eremua (familia eta bizikideak)

Sexu-indarkeria: Erasoak, sexu-jazarpena eta jazarpen sexista

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenean) jasotzen diren guztiak

INDARKERIA MATXISTAREN BESTELAKO MOLDEAK

LGTBIQA+ kolektiboaren aurkako indarkeria Sexu-generoaren arloko agindu sozialak edo heteronorma ez betetzeagatiko edozein indarkeria mota

Generoan oinarritutako jazarpena Generoko agindu sozialak ez betetzeagatiko jazarpena

Genero barruko indarkeria Genero bereko bikotekideen artekoa

Sexu-indarkeria

Hala, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onetsi zuen)* indarkeriaren eremuak eta moduak zabaldu ditu, hainbat eskumen-eremutan aintzat hartu beharrekoak:

Emakumeen aurkako indarkeria matxista dira bikotekideak eta bikotekide ohiak ezarritakoa, familia barruan ezarritakoa, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta nesken salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen mutilazio genitala, behartutako ezkontzak eta beste praktika tradizional kaltegarri batzuk, derrigortzeak edo askatasunaren gabetze arbitrarioak, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu- eta ugalketa-eskubideen urraketa eta emakumeen nahiz nesken duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kaltetu dezakeen bestelako edozein indarkeria mota, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo araudi estatal zein autonomikoan jasota badago. Hori guzti hori, edozein eremu publiko nahiz pribatutan gertatu gorabehera. Hor barruan sartzen dira, mugarik ezarri gabe, eremu hauek: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola, komunitatea, komunikabideak, aisialdirako guneak, jai-guneak eta ingurune birtuala.

Aldi berean, **biktimen kontzeptua zabaldu du:**

Emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat jotzen da, halaber, biktimei laguntzen dietenen aurka ezarritakoa, baita, emakumea samintzeko asmoz, haren ingurune hurbil edo afektiboaren aurka ezarritakoa ere; bereziki, seme-alaben edo beste senide batzuen aurkakoa.

Ezinbestekoa da adieraztea indarkeria matxistak indarkeria sexista eta LGTBIQA+ kolektiboari zuzendutako **indarkeria matxistaren beste molde batzuk** (hala nola lesbofobia, homofobia eta transfobia) barruan biltzen baditu ere udalen, foru-aldundien eta autonomia-erkidegoen gizarte-zerbitzuek **ez daukatela oraindik indarkeria mota horiei arreta emateko balia biderik.**

Protokolo honek, beraz, indarkeria horiek jorratzeko moduak planteatuko ditu, eta, horretarako, erreferentziatzko esparru honi jarraituko dio, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren jardun-eremuak eta askotariko moldeak bereizita:



5. PRINTZIOPIO GIDARIAK, IRIZPIDEAK ETA GIDALERROAK

Atal honetan, protokoloa sinatu duten erakundeek Derion jazotzen diren indarkeria matxistako kasuen aurrean —nork bere eskumen-eremuan— nola jardun behar duten jakiteko printzipio gidariak jasotzen dira. Biktimak neurri guztien erdigunean kokatuko dituen arreta integral eta kalitatekoa lortzeko, ezinbestekoa da eskuhartzea ahalik eta egokiena izatea, indarkeria horren ezaugarri bereziak aintzat hartuta. Printzipio gidariak irizpideetan eta jarduteko gidaleroetan zehaztu behar dira, baina irizpide eta gidalero horiek bideragarri egin behar dituzte printzipiook, ez daitezen gida hutsa izan, praktikan eraginik ez duena; hori dela eta, apartatu honetan jarraituko dugun logikak bereizketa hau egiten du:

- **Printzipioak:** jarduketa horren **zergatia** adierazten diguten gida etikoak.
- **Irizpideak:** jarduketa baten zergatia **zerbait** bihurtzen duen erabakia; hau da, lehenetsi behar diren alderdiak dira.
- **Jarduteko gidaleroak:** ekintzarako erremintak dira, eta jarduketa **nola** egin adierazten dute.

PRINTZIOPIO GIDARIA	IRIZPIDEAK	JARRAIBIDEAK
BERDINTASUNA SUSTATZEA	<p>Biktimari sinestea</p> <p>Birbiktimizazioa saihestea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Biktima jarriko dugu jarduketa guztien erdigunean, eta, indarkeria identifikatu edo-ta erabakiak hartzeko orduan, haren denborak errespetatuko ditugu. • Entzute aktiboa erabiliko dugu, shock-uneetan ager daitezkeen hutsune mentalak eta inkoherentziak aintzat hartuta. • Zerbitzuak modu eraginkor eta efizientean koordinatuko gara, biktimen arretari eta premiei lehentasuna emanaz.

PRINTZPIO GIDARIA	IRIZPIDEAK	JARRAIBIDEAK
BERDINTASUNA, INTERSEKZIONALITATEA ETA LEHENTASUNA ARRETAN	<p>Irisgarriak izatea eta arrazagatik, sexu-joeragatik, erlijioagatik... ez diskriminatzea.</p> <p>Zailtasun edo zaurgarritasun handiagoko egoerak detektatzea.</p> <p>Arreta ematean intersekzionalitatea kontuan hartzea, zeharka.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bide-laguntza oso eta pertsonalizatua ematea. • Emakume baten bizitzan gurutzatzen diren askotariko zapalketak aintzat hartzea. • Itzulpen-zerbitzuak martxan jartzea, bai beste hizkuntza batzuetan komunikatzeko, bai desgaitasunen bat duten emakumeentzat bestelako komunikazio-sistemak txertatzeko.

PRINTZPIO GIDARIA	IRIZPIDEAK	JARRAIBIDEAK
AHALDUNTZEA, AUTO-NOMIA ETA AUTODETERMINAZIOA	<p>Aukera erreal eta baliabide espezifikoki gehiago eskaintzea, emakumeek indarkeriatik irteteko prozesua jorra dezaten.</p> <p>Emakumeei lanketan laguntzea, bizitzaren hainbat alderdiri buruzko erabakiak hartzeko gaitasuna indartu dezaten.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bide-laguntza banakatua ematea, beren eskubideak ezagut ditzaten eta erabakiak hartzeko edota gaitasunak eta indarguneak garatzeko orduan laguntza jaso dezaten. • Erabakiak modu autonomoan hartzen laguntzea. • Kasu bakoitzean egokiena den moduan ematea baliabideei buruzko informazioa (modu bisualean, hitzen bidez eta abar), hizkuntza ulergarria erabilita.

PRINTZIPIO GIDARIA	IRIZPIDEAK	JARRAIBIDEAK
ETENGABE HOBETZEA ETA KONTU EMATEA	<p>Baliabideetara sartzeko orduan arin eta eragin-kor jokatzeari.</p> <p>Informazioa transmititzen laguntzea.</p> <p>Arreta- eta koordinazio-ereduetan berrikuntza bultzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Organoen artean koordinatzea eta egindako ekintzak eta haien eragina ebaluatzea. • Datuak etengabe eta zehatz jasotzea. • Datuei buruzko txostena egin eta zabaltzea, kontu emateko. • Baliabide espezializatuetakoa itxaron-zerrendak murriztea.

PRINCIPIO RECTOR	CRITERIOS	PAUTAS
ADINGABEEN INTERES GORENA	<p>Ama biktimei babes oso-oso emateko gaitasunak sustatu edo indartzea.</p> <p>Arretan konfidentziasuna eta intimitatea bermatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Haurrak eta nerabeak prozesu osoan babesten direla eta birbiktimitatzen ez direla bermatzea. • Ahal den neurrian, adingabeen autonomia eta erabakiak hartzeko ahalmena aitortu eta ahalbidetzea. • Konfiantzazko toki seguruak sustatzea. • Hizkuntza, azalpenak eta denborak adingabearen premien arabera egokitzea.

PRINCIPIO RECTOR	CRITERIOS	PAUTAS
ERREPARAZIOA	<p>Printzipio hauei jarraitzea:</p> <p>Lehengoratzea, kalte-ordainak ematea, errehabilitatzea, asebetetzea, berriro errepikatuko ez dela bermatzea eta kontu ematea.</p> <p>Esku-hartze indibidual, kolektibo eta publikoa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimei kalte-ordainak ematea eta omenaldiak egitea, betiere haien nahiak eta premiak aintzat hartuta. • Entzuteko guneak prestatzea komunitaterako, kasu bat gertatzen denerako. • Biktimen/Bizirauleen elkarteak sustatzea.



6. ZEHARKAKO ALDERDIAK

Printzipioak, irizpideak eta jarraibideak ez ezik, zeharkako askotariko alderdiak ere kontuan hartu behar dira, bai esku hartzean, bai eragileen arteko koordinazioa hobetzeko.

6.1.1. Harrera, entzute aktiboa eta harmonia

Harrera eta lehendabiziko hartu-eman oso erabakigarriak dira esku-hartzearen oinarriak ezartzeko, gero modua egon dadin, bai bizitakoa (gertaera zehatzak) jorratzeko, bai ondorio psikologikoak nahiz bestelakoak (sozialak, ekonomikoak, etxebizitzari dagozkionak...) lantzeko. Hori erabakigarria izan daiteke artatuak gero hartuko dituen erabaketan.



Harreran, oso garrantzitsua da **harmoniaren** teknika erabiltzea. Teknika hori ez dute psikologoek bakarrik erabiltzen, eta edozein profesionalak aplika dezake: mesede egingo dio edozein elkarrizketari, salaketa hartzeko moduari edota epe luzerako esku-hartze bati. Harmoniak hiru zati dauzka:

1. **Entzute enpatikoa:** biktimak erabilitako espresioak, tonua, gorputz-adierazpena, erakutsitako emozioak eta abar jaso behar ditu.
2. Profesionalak, entzun bitartean, kontakizunaren zer alderdi sakonduko dituen baloratuko du, detektatzen dituen **premien** arabera.
3. Narrazioan **entzun eta behatutakoa itzultzea**, biktimak erabilitako hitz berberak erabiliz. Horrela, emozio guztiak onartzen eta baliozkotzen dira, harrera ona izateko gakoa hori.
- 4.

6.1.2. Baimen informatua eta datuak lagatzea



Biktimaren autonomiari eta erabaki-hartzeari arreta berezia jartzeko eta datuak babesteko lege-betebeharrak betetzeko helburuz, entitate sinatzaileek aintzat hartuko dituzte *Datuak Babesteko Europako Erregelamenduan (apirilaren 26ko 679/2016 Erregelamenduan) jasotako irizpideak:*

- ✓ **Adingabeek 14 urtetik aurrera eman dezakete banakako baimena.**
- ✓ **Baimenak askea, zehatza, informatua, argia eta berariazkoa izan behar du.**
 - Datuak zer entitateri eta zertarako emango zaizkion zehaztea.
- ✓ **Ahozkoa nahiz idatzizkoa izan daiteke.**
 - Isiltasuna ez da baimentzat hartuko.
 - Berme handiagoa izateko, zerbitzu jakin batzuek beti eskatzen dute idatziz ematea.
- ✓ **Argi eta garbi eman behar da informazioa, interesdunari egokitutako hizkuntza ulergarrian.**
- ✓ **Beti eman behar da** tratamendua gardena izateko, tratamenduari buruzko informazioa jasotzeko, datuak begiratu, zuzendu, eraman eta ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eta tratamenduari aurka egiteko **eskubideei buruzko informazioa.**

Hiru kasu hauetan, **ez da aurretiko baimenik behar** datuak komunikatzeko:

1. Osasun publikorako arriskua egotea.
2. Biktimaren edo ardurapeko pertsonen osasun fisiko edo psikikorako arrisku larria egotea.
3. Lege-mailako arau batek berariazko baimena ematea entitateen artean datuok komunikatzeko.

6.1.3. Bide-laguntza, koordinazioak eta jarraipena

Esku-hartzea ona izan dadin, alderdi hauek funtsezkoak dira: bide-laguntza, zerbitzuen arteko koordinazioa eta kasuaren jarraipena.

Bide-laguntzak abiapuntuan dauka emakumeak eta indarkeria matxistaren bestelako biktimak haien prozesuan agente aktiboak direlako ideia. Bide-laguntzak oso-oso eta pertsonalizatu izan behar du. Bide-laguntzak aukera eman behar du artatuaren denborak eta erabakiak




errespetatzeko, eta arreta ematen dutenek indarkeria matxistaren ondorengo mekanismoak ezagutu behar dituzte, mekanismook askotariko ondorioak sorrarazten baitizkiete biktimei.

Zerbitzuen barruko edo zerbitzuen nahiz baliabideen arteko **koordinazioak** modua eman behar du ez birbiktimizatzeko, kontakizuna alferrik ez errepikatzen eta esku-hartze oso eta eraginkorra abiatzeko, prozesuak desberdinak izaten direnez denborak eta kudeaketak ere desberdinak —ez estankoak— izango direla onartuta.

Halaber, garrantzitsua da kasuei eta burututako jarduketegi **jarraipena** egitea, baita zerbitzuen arteko koordinaziorako garrantzitsua izan daitekeen edozein aldaketaren berri ematea ere. Jarraipenak erreparazioa eduki behar du jomugan, eta lehen aipatutako bide-laguntzarekin harremanetan egon.

**ZEHARKAKO
ALDERDIAK**

**HARRERA, ENTZUTE
AKTIBOA
ETA HARMONIA**



**BAIMEN
INFORMATUA
ETA DATUEN
LAGAPENA**



**BIDE-LAGUNTZA,
KOORDINAZIOAK
ETA JARRAIPENA**



7. DERION INDARKERIA MATXISTAKO KASUETAN JOKATZEKO PROZEDURAK

7.1. SARTZEKO GUNEAK: SARBIDEAK ETA DETEKZIO-ZERBITZUAK

Derion, udalaren, mankomunitatearen, foru-aldundiaren eta autonomia-erkidegoaren zerbitzuak dira indarkeria matxistaren biktimak zerbitzu publikoetara iristeko sarbideak. Zerbitzuok, **arreta** emateaz gainera, funtsezkoak dira indarkeria **detektatzeko**. Hasierako detekzio horrek **zuzenean eragingo du** biktimekin gero egingo den esku-hartzean.

Derioko Udalak, **Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuaren** bidez, Udalaren berdintasun-politikak sustatzen, koordinatzen eta ebaluatzen ditu, eta jarraipena egiten. Zerbitzu horren eginkizuna ez dago zuzeneko arretara hain bideratuta, baina kasuen hartzailea izan daiteke, berdintasuneko erreferente gisa. Kasuok deribatu egingo dira, eta mankomunitateko gizarte-zerbitzuekin koordinatuko.



SARBIDEAK

UDALAREN ETA MANKOMUNITATEAREN ARLO ETA ZERBITZUAK

- Mank. Berdintasun Zer.
- Mank. OGZK
- Kultura Atala
- Udaltzaingoa
- Arreta Psikologikoko
- Zerbitzu Orokorra

FORU-ZERBITZUAK

- GLFZ Bizkaia
- Arreta soziojuridikoa (Clara Campoamor)
- Arreta psikologikoa (Esnatu)
- Sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko

ZERBITZU AUTONOMIKOAK

- Ikastetxeak
- Ertzaintza (Erandio)
- Derioko osasun-zentroa
- Etengabeko Arretako Gunea
- Urdulizko Ospitalea
- Gurutzetako Ospitalea
- BLZ
- SATEVI
- Lanbide

7.2. ARRETA-ZERBITZUEN EGINKIZUNAK

Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ)

Mankomunitateko OGZetan oinarrizko hiru gizarte-langilek egiten dute lan, eta haietako bat erreferentea da Derioko udalerrirako.

Baliabide honetara iristeko **sarbideak** hauek dira:

- Emakumeak jotzen du bertara, arreta esplizituki eskatzera, bai indarkeria pairatzeagatik, bai beste premia batzuegatik, eta indarkeria matxistaren zantzuak ikusten dira.
- Beste zerbitzu batzuetatik deribatuta: polizia-zerbitzuetatik, Osakidetzatik, ikastetxetik, beste bitarteko edo entitate batzuetatik...

Normalean, aurretiatzko hitzorduarekin egiten da, genero-indarkeriako kasua lehentasunezkoa denean izan ezik.

OGZn, **prozedura** honi jarraitzen zaio:

- Harrera eta hasierako balorazioa egitea.
- "Indartuz"² premiazko foru-ostatua eskaintzeko premiarik dagoen baloratzea. Beharrezkoa bada, Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuekin (GLFZ) harremanetan jartzea eta Ertzaintzari laguntza eskatzea.
- Lesioak ikusiz gero edo lesioak daudela susmatuz gero, osasun-zentrora edo ospitalera deribatu edota laguntzea.
- Banakako Arreta Plana (BAP) egitea, emakumearekin batera.
- Interesezkoak izan daitezkeen baliabideei eta zerbitzuei buruz informatzea (hurrengo grafikoan ikusten dira).
- Gainerako bitarteko eta zerbitzuekin koordinatzea (udalarenak, foru-aldundiarenak edo autonomia-erkidegoarenak)³.

² Emakumeei eta beren ardurapean dauden mendekoei larrialdiko eta egonaldi laburreko arreta- eta ostatu-zerbitzua ematea, seme-alabak edo mendeko helduak izan, indarkeria matxistaren biktimea bada eta osotasun fisiko edo emozionala arriskuan badute. Eguneko 24 orduetan berehalakoa, urte osoan. Hauen bidez egiten da: Ertzaintza, Gizarte Larrialdiko Zerbitzuak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzu Espezializatuak.

³ EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaaien arreta koordinatzeko erakunde artek III. Akordioak hau esaten du genero-indarkeriako kasuen prozesu judizialari buruz: «Biktima ardatzen duten gizarte-zerbitzuak Ertzaintzarekin lankidetzan arituko dira ikerketarekin eta ez-zilegi penala aritzearekin lotutako informazioa partekatuz. Informazioaren bat partekatu behar bada biktimak horretarako

OGZk ematen duen arretan, halaber, alderdi hauek kudeatzen dira:



Genero-indarkeriaren biktima-kondizioa egiaztatzeko ziurtagiria

Berdintasunaren aldeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzaren 2021eko abenduaren 2ko Ebazpenak⁴ **gizarte-zerbitzuei** ahalmena ematen die genero-indarkeriaren biktimei —salaketa jarri zein ez— Estatuko araudian aitortutako eskubideak eta prestazioak eskuratzen laguntzeko egiaztagiria emateko.

Ebazpenean, administrazioaren ziurtagiria zer egoeratan eska daitekeen ezartzen da (eskaera delako udalaren gizarte-zerbitzuetan edo egokitzen diren zerbitzu espezifikoetan egin behar da), baita aplikazio-eremua, ziurtagiria emateko prozedura eta administrazioaren ziurtagiria onesteko orduan aintzat hartu behar diren inguruabarrak ere.

berariaz baimenik eman gabe, berarekin lotura mantentzeko komenigarria da jakinaraziko denaren eta izan ditzakeen ondorioen berri ematea».

4 Por la que se publica el Acuerdo de la Conferencia Sectorial de Igualdad, de 11 de noviembre de 2021, relativo a la acreditación de las situaciones de violencia de género.

Ziurtagiriak helburu zehatz eta bakarrarekin ematen dira (adibidez, prestazio edo zerbitzu bat jasotzeko). Gainera, denbora-irismen mugatua dute. Egiaztapen-eredua bat edo beste izango da, eskatzen den baliabidearen/prestazioaren arabera. Ziurtagiria Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari bidaltzen zaio, eta hark baliozkotzen du.

Halere, garrantzitsua da jakitea lege horren arabera **gizarte-zerbitzuko, zerbitzu espezializatuko edo erabiltzaileak aukeratu duen baliabide-sareko (ez OGZ bakarrik) beste baliabide bateko** esku-hartze edo laguntzarako taldearen aurretiko balorazioa behar dela.

Polizia-eremua (Udaltzaingoa eta Ertzaintza)

Genero-indarkeriaren/Etxeko indarkeriaren arloan, Ertzaintzak dauka eskumena; dena dela, Udaltzaingoa lehenengo sarbidea izan daiteke, eta, hortaz, funtsezkoa da zerbitzu horien artean (beren barne-protokoloak dauzkate) eta gainerako baliabideen artean koordinatzea. Halaber, kontuan hartu behar dugu protokolo honek barruan hartzen duela emakumeen eta LGTBQIA+ kolektiboko kideen aurka ezartzen den edozein indarkeria matxista, eta bi polizia-kidego horiek eskumenak dauzkate arlo horretan.

Genero-indarkerian/Etxeko indarkerian espezializatuta dauden ertzainak astelehenetik ostiralera egoten dira, 07:00etatik 14:30era⁵. Emakumeek profesional horiekin egon nahi badute, aurretiazko hitzordua ematen zaie.

Horrelakoetan, **sarbideak** hauek izan daitezke:

- Poliziak *in situ* jardunda, biktimak edo aurrean daudenek deitu dutelako.
- Biktima edo beste norbait polizia-etxera joanda.
- 092 edo 112 zenbakietara deituta.
- Beste baliabide batzuek deribatuta, polizia egotea edo poliziak laguntzea eskatu badute eta Ertzaintzak horren berri badu.

⁵ Halere, genero-indarkeriako nahiz sexu-indarkeriako kasu larriak edozein ordutan salatu daitezke, ikertzailearen bat beti egoten delako guardian.

Jarduketak hauek dira:

- Lehenengo harrera, biktima zer egoeratan egon daitekeen kontuan hartuta eta harrerari garrantzi berezia emanda (dokumentu honen 6.1.1 atalean jasotzen da harrera).
- Biktima psikologikoki bereziki eraginda badago edo shock-egoeran badago, Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuarekin (GLFZ) harremanetan jar gaitezke, haren laguntza eskatzeko.
- Biktimaren kontakizuna jasotzea, atestatua egitea eta arriskua baloratzea, babes-neurriak ezartzeko.
- Salaketa jarri osteko prozeduraren berri (epaiketa azkarra)⁶ eta eskubideen berri ematea (doako laguntza juridikoa, babes-agindua eskatzeko eskubidea, behar duen tokira laguntzea, hala nola ospitalera, senide baten etxera...).
- Zerbitzuetara deribatzea: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), OGZ, Osakidetza, Berehalako Harrera Zerbitzua, 24 ordukoa (Indartuz).
- Genero-indarkeriako/Etxeko indarkeriako ertzainak (kasuaz arduratzen denak) kasuari jarraipena egitea.

Osakidetza

Hauek izan daitezke **sarbideak**:

- Urdulizko Ospitalea: ospitaleko eta etxeko larrialdiak.
- Gurutzetako Ospitalea: ospitaleko eta etxeko larrialdiak (14 urtetik beherakoen kasuan).
- Etengabeko Arretako Gunea.
- Derioko osasun-zentroa.

Eraso matxistekin zerikusia duten kasuetan, honela ematen da arreta:

- Ospitaleko arreta**, artatuaren lesio fisikoak eta egoera emozionala kontuan hartuta.

⁶ Genero-indarkeriako kasuetan, Ertzaintzak ofizioz jardun behar du, eta, beraz, atestatua bideratu behar du, nahiz eta biktimak salaketarik jarri ez.

- ✓ Uribeko ESIko **gizarte-langileak** esku hartuko du Urdulizko Ospitaleko Larrialdietan detektatutako kasuetan. Horrelakoetan, gizarte-langilea jarriko da OGZrekin harremanetan, betiere, biktimak onartzen badu. **Osasun-zentroan detektatzen bada**, osasun-langilea (familia-medikua edo erizaina) jarriko da harremanetan OGZrekin.
- ✓ **Lehen Mailako Arretara** deribatzen da, hurrengo 24-48 orduetan joan dadin.
- ✓ **Sexu-erasoa** gertatu bada (24 ordu / 10 egun lehenago), Urdulizko Ospitalean artatuko da, eta, 14 urtetik beherakoa bada, Gurutzetako Ospitalean.
- ✓ Urdulizko Ospitalean artatutako emakumeei Ginekologia Zerbitzuaren⁷, bidez egiten zaie **jarraipena**, laginak hartuz.
- ✓ Sexu-erasoak nahiz genero-indarkeriako kasuak **familia-medikuari komunikatuko** zaizkio, jarraitutasun asistentziala ziurtatzeko, betiere, biktimak onartzen badu.

Ofiziozko salaketei buruz, hau azpimarratzen dugu:

- ✓ Betebeharra ez da erabatekoa, zerbitzuaren barne-mailako balorazio-tresnaren arabera bizi-arriskua handia ez bada. Arriskua handia bada, jarraituko den prozeduraren berri emango zaio emakumeari.
- ✓ Ospitaleak egokitzen diren urrats guztiak emango ditu, baita egoerari buruzko guztia erregistratu ere (lesioak eta abar), baina, kasuaren eta emakumeak nahi duenaren arabera, ez da zertan salaketarik izapidetu.

⁷ Gaur egun, beste aukera batzuk baloratzen ari dira, emakume bakoitzaren premien arabera.



Ikastetxeak

Derion, zentro hauek daude:

- ✓ **Politeknika Txorierrri:** Itunpeko kooperatiba honek Lanbide Heziketa eta Batxilergoa ematen ditu.
 - Zentroak barne-mailako Berdintasunerako I. Plana dauka, eta, protokolo hau idazten amaitu egunean, eguneratzen ari ziren.
- ✓ **Txorierrriko BHI:** Institutu honetan, guztira, 800 ikasle daude.
 - Nabarmendu beharra dugu institutua Kemena⁸ harrera-pisuetatik hurbil dagoela eta, beraz, genero-indarkeriaren ikasle biktima asko etxebizitza horietatik datozela.
- ✓ **Derioko Herri Ikastetxea:** Hezkuntza-zentro honetan, guztira, 600 ikasle daude.

Toki hauetan, **sarbideak** hauek izan daitezke:

- ✓ Banakako tutoretzak.
- ✓ Kanpoko langileekin egiten diren lantegiak, adingabeek beren egoeraren berri ematen badute.
- ✓ Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik edo udalaren nahiz mankomunitatearen beste arlo batzuetatik deribatzea.
- ✓ Mankomunitateko hezitzaileak.
- ✓ Irakasleek detektatzea.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak) hau ezartzen du 34. artikuluan:

“Irakasleek ikastetxeen zuzendaritza-organoei jakitera eman beharko diete emakumeen eta haurren aurka nabaritzen duten indarkeria matxistaren zantzu oro”.

⁸ **Kemena**, egonaldi ertaineko harrera-zerbitzu forala da, emakumeei eta haien seme-alabei zuzendua (Bizkaiko Foru Aldundia).

Zuzendaritzari jakinarazi ondoren, hark **Hezkuntza Ikuskaritzarekin eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin** hitz egingo du, jarduteko eta familiarekin harremanetan jartzeko prozedura has dadin. Beharrezkoa bada, **pediatrarekin** koordinatuko dira, adingabearekin osasun-arloan jarduteko. Dokumentu honetan, prozedura horiek zehatzago jasota daude: **«Indarkeria matxistaren biktima diren neska, nerabe eta emakumeei laguntzeko ikastetxeetarako jarraibideak»⁹**.

Hezkuntzan, bestalde, erreferentziatzko hiru figura dauzkate:

- ✓ **Ikuskaritza:** organo honek aktibatzen den edozein protokolo kudeatzen du.
- ✓ **Berritzegune:** detektatutako kasuetan aholku ematen du, eta irakasleak trebatzen ditu.
- ✓ **BAT taldea:** talde honek bizikidetza-eremua lantzen du, eta jarduketa-protokoloa kudeatzen. Zuzendaritzak, ikasketa-buruak, ongizate-arduradunak (bi urte daramatza karguan, eta aditua da ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan (Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Erabat Babesteari buruzkoan)), orientatzaileak eta izendatutako koordinatzaileak osatzen dute.



9 Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/hezkuntza_ikuskaritza_dok_haur/eu_def/adjuntos/INDARK_JARRAIB-BERRIA_e.pdf

Derioko Udalaren Kultura Atala


Derioko udalerrian, atal hau oso garrantzitsua da; batetik, Berdintasun Zerbitzuarekin lankidetzan estuan lan egiten duelako, eta, bestetik, adin guztietako adingabeentzako zenbait baliabide eta jarduerak dauzkalako eta toki horietan indarkeria matxisten kasuak detektatzen direlako.

Atal honek, eskolekin lankidetzan estuan arituta, indarkeria matxistak prebenitzeko eta arlo horretan sentsibilizatzeko lanak egiten ditu, baita **kasuak detektatzen** ere, hauen bidez:

- ✓ Ludoteka: 4-12 urte.
- ✓ Ludogazte: 12-14 urte.
- ✓ Gazteleku: 14-18 urte.

Kasu bat detektatzen denean edo haren berri duenean, tartean direnei zuzeneko arreta emateaz gainera, Derioko erreferentziatzko gizarte-langileari deribatzen zaio kasua, harekin koordinatuta. .

Indarkeria matxistaren arretan, egoera hauek gerta daitezke:



7.3. LARRIALDI-EGOERA

Berehalako eta presazko arreta behar da-

OGZ gizarte-larrialdiko **prozedura irekitzearen** parekoa da. Babesgabetasun-egoera larriak presazko arreta eskatzen du. **Berehalakoa eta ezinbestekoa.**

4 koordinazio-lehentasun bereizten dira:

1. **Sorospena eta babesa.**
2. Larrialdietako **osasun-arreta.**
3. **Presazko ostatu-ematea.**
4. **Presazko bide-laguntza psikosoziala.** (Lehen sorospen psikologikoak)


Lehentasunez inplikaturako zerbitzuak:

- SBB
- Osakidetza (ospitalea)
- SFUS
- Ertzaintza
- Udaltzaingoa
- Justizia

Baliteke arreta-prozesua denboran luzatzea; horrelakoetan, lehentasuna emango zaio seme-alabak emakumearen nahierako pertsona batekin geratzeari. Ezin bada, seme-alabak foru-zerbitzuen tutoretzapean geratuko dira aldi baterako, GLFZrekin koordinatuta.

Nolanahi ere, arriskua eta egoera emozional eta fisikoa baloratuko dira, eta adingaberik, mendekorik, maskotarik... dagoen ikusi.

Hona hemen kasuotan jarduteko **ibilbidea**:



7.4. PRESAZKO EGOERA

Ez du berehalako arretarik behar, baina bai presazko esku-hartzea edo erantzun azkarra

Informazioa eta aholkularitza eta deribazioa:

Eskura dituen baliabide guztiez informatu Lehetasunez OGZra deribatu
Azpimarratu artatua izateko eskubidea, salaketa jarri zein ez

4 koordinazio-lehetasun bereizten dira:

1. **Eskubideei eta baliabideei** buruzko informazioa.
2. **Gizarte-laguntza.**
3. **Laguntza psikologikoa.**
4. Salaketa (ez beharrezkoa) **babesa eta arriskuaren lehenengo balorazioa** jasotzeko

Lehetasunez inplikaturako zerbitzuak:

- OGZ
- Osakidetza
- Ertzaintza
- Udaltzaingoa
 - Justizia
- Arreta psikol. foru-zerbitzua (Esnatu)
- Arreta soziojuridikoko foru-zerbitzua
 - BLZ
 - Ikastetxeak
- Sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko zerbitzua

Emakumeak identifikatu ez arren, inguruabar hauek ere **presazkotzat jotzen dira:**

Emakumeak ageriko lesioak dauzka, edo dauzkalako susmoa dugu

Emakumeak dibertsitate funtzionala dauka

Emakumearen familiak edo erasotzaileak erasotzailea berriro elkartzea nahi du

Emakumeak laguntza eskatu du bere ingurune hurbilenean

Salaketa jarri du edo jarri nahi du

Emakumea haurdun dago, eta bizi-arriskua dago

Familia berriro elkartu da, eta erasotzailea emakumearekin bizi da

Erasotzailearen familiarekin bizi da

Etiketarik irten nahi duela esan du

Emakumeak lana aldatu du

Emakumeak dirua bidali behar dio familiari edo hala egitea eskatu diote

Emakumeak beste herrialde batera joan nahi du ikastera edo lanera

Harremana bukatu nahi du, eta horren ondoriozko arriskua ikusten dugu

Emakumeak familia berriro elkartzea nahi du, erasotzailea barne

Emakumeak harreman berri bat dauka

Emakumeak gizarte-mailan salatu nahi du bitzitako indarkeria

Teknikariak berehalako arriskuaren adierazleak detektatu ditu

Emakumeak familiaren zati bat berriro elkartzea nahi du, erasotzailea kenduta


Emakumeak bitziza soziala berreskuratu du

Presazko egoeretan, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan:

- ✓ **Emakumeak izan dezakeen krisialdia lantzea**, laguntza emanez eta berari eta bere ardurapekoei egokitutako segurtasun-neurriei buruz informatuz.
- ✓ Baliabideekin harremanetan jarraitzea eta mankomunitateko OGZra **joatea oso garrantzitsua dela azpimarratzea**, salaketa egon zein ez.
- ✓ **Baliteke emakumeak presazko neurriak baztertzea** (adibidez, salaketa jartzea edo presazko harrera-etxe batera sartzea).



Hona hemen jarraitu beharreko **ibilbideak**:



ADINGABEAK
DAUDE?

Informatu honi: →

ADINGABEAK
IZENDATUTAKO
PERTSONA.
BESTELA, GLFZ

LESIOAK DAUZKA
EDO SUSMOA
DAGO?

Ertzaintza?

Lagundu hona: →

Urdulizko
Ospitalea

BAI

Beste baliabide batzuk:
beharrezkoa bada,
eskatu bide-laguntza

Ertzaintza

Epaitegira
lagundu

EZ

Lagundu hona:

BAI


SALATZEA
ERABAKI DU?

EZ

**-Salaketa egon zein ez
-Zerbitzuekin koordinatu,
jarraipena egin eta, kasuaren
arabera, deribatu hona:**
Z. autonomikoak: aholkularitza
juridikoa, osasun-zentroa,
Lanbide, OGZ.
Z. foralak: Ar. soziojuridikoa, ar.
psikologikoa, berehalako
harrera-zerb.

Koordinatu
eta
deribatu

GLFZ/OGZ



7.5. LEHENTASUNEZKO ARRETA JARRAITUA

Lehentasunezko arreta, esku-hartze-prozesu jarraitu batean.

Kontuan hartzekoak:

- Premien diagnostikoa.
- Baliabideetarako sarbidea eta kudeaketa.
- Bide-laguntza soziala eta ahalduntzea.
 - Prozesu judiziala.
 - Bizilekua, enplegua, hezkuntza.
- Arreta soziosanitarioa.

OGZren zeregina funtsezkoa da:

- Harrera eta eskubideei/baliabideei buruzko informazioa.
- Arreta-plan pertsonalizatua egitea, emakumearekin batera.

Lehentasunez inplikaturako zerbitzuak:

- ogz
- Osakidetza
- Ertzaintza
- Udaltzaingoa
 - Justizia
 - Zerbitzu espezializatuak (mankomunatuak eta foralak)
- Ikastetxeak
- Justizia (BLZ, Fiskaltza...)
- Lanbide, Etxebide, Alokabide.

Arreta jarraituan, **funtszko alderdi batzuk** kontuan hartu behar dira:

Arreta jarraituan, presazko egoerak sor daitezke

Joan-etorriak egon daitezke erasotzailearekiko harremanean, esku-hartzeari kalterik egin gabe.

OGZk genero-indarkeriaren biktima-kondizioa egiaztatzeko ziurtagiriak izapidetzen ditu (EJ).

Informazioa eta plangintza garrantzitsuak, erritmoak errespetatuz.

Koordinatzea eta hitzorduak ematea

Salaketa jartzeak dakartzan denborez eta prozesuaz ondo informatu, aurretik planifikatzeko.


Genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeekin esku hartzean:


- ✓ Eskueran dauden baliabide espezifiko guztiak eskainiko ditugu; bereziki, arreta psikologikokoak.
- ✓ Emakumea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan artatzen ari ez badira baina haurrak edo nerabeak badaude, zerbitzuari kasuaren berri emango diogu, adingabearen interes gorenarekin bat.
- ✓ Emakumea gizarte-zerbitzuetan artatzen ari badira eta babes-neurriak ezarri badizkiote, eskolari edo adingabeak parte hartzen duen baliabideei (ludoteka, ludogazte, gazteleku, udalekuak...) egoeraren berri emateko modua adostuko dute erreferentziazko gizarte-laguntzaileak eta emakumeak, azken horren baimen esplizituarekin, tokiok neurri egokiak har ditzaten.

Haurrak edo nerabeak dauden kasuetarako, Osakidetzaren “*Genero indarkeriaren biktima diren seme-alaben aurrean jarduteko osasun-arloko profesionalentzako gidak*” indarkeria-egoeretako **jokabide-adierazleak** jasotzen ditu¹⁰ esku hartzeko oso lagungarriak.

10 2024ko maiatzean argitaratu zen: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_genero_hijas_hijos/eu_def/adjuntos/VG_hijos_as_profes_salud_web_eu.pdf



Arreta jarraituan, prozesu hauek egiten dira:





DERIOKO UDALTZAINGOA

1. instantzia egin eta deribatu



7.6. SEXU-ERASOEN KASUETAN ARRETA EMATEA

Bi egoera bereiziko ditugu, sexu-erasoa **duela gutxi** (240 ordu/10 egun¹¹) gertatu den edo **10 egun baino gehiago** igaro diren:

7.6.1. Duela gutxiko sexu-erasoetan arreta ematea (240 ordu/10 egun)

- ✓ **Emakumearen krisia, shock-egoera eta/edo beldurrak artatzea:**
 - Argitu iezaiozu arreta jasotzeak **ez diola salatzenko betebeharririk sortzen.**
- ✓ **Gomendatu hauek ez egitea:**
 - Dutxatzea, hortzak garbitzea, arropaz aldatzea, jatea edo edatea. Dagoeneko egin badu, ordea, ez errudun sentiarazi.
- ✓ **Emakumeak salatu nahi ez badu, ez behartu:** Informatu doako laguntza juridiko-koa jaso dezakeela.
 - Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean Euskadin nola jardun jaki-teko jarduketa-gidaren 3.3 puntuan, "Salaketa judizialaren alderdi etiko-ei" buruzkoan, salatzenko betebeharra absolutua ez dela jartzen du; hau da, indarkeria matxisten biktimak artatzen dituzten medikuek ez diote Er-tzaintzari lesioen parte igorri behar, baldin eta emakumea aurka bada-go eta emakumearentzat edo mendeko pertsona zaurgarrientzat bereha-lako¹² arrisku larririk ez badago.
 - Biktimaren borondatea errespetatzeko arauak hiru salbuespen dauzka:
 1. Egoerak jarraituz gero arriskuak larriak izatea (larritasuna baloratu beharko da);
 2. Mendekotasun-egoeran dauden beste batzuei larri eragitea;
 3. Emakumeak erabakia hartzeko gaitasunik ez izatea, hala dela frogatzen bada (adibidez, Zigor Kodearen 20.5 artikuluan erregulatutako premia-egoeran badago).

¹¹ EAEen emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundearen arteko III. Akordioaren arabera, duela gutxiko sexu-erasoak azken 240 orduetan (azken 10 egunetan) gertatutakoak dira

¹² Erakundearteko III. Akordioaren arabera, hainbat arreta-egoera daude (protokolo honen 7.3, 7.4 eta 7.5 apartatuetan jasotzen dira): larrialdikoa, presazkoa eta/edo jarraitua.

✓ Biktima adingabea bada:

- Eskudun agintaritzei kasuaren berri emango zaie (gizarte-zerbitzuei eta Fiskaltzari), eta adingabeak aukeratzen duenari abisatuko zaio, **lagundu diezaion eta zerbitzuei buruzko informazioa jaso dezan.**

Ospitalean laginak hartzeari dagokionez, bat etorrita *Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko Legearen (irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa) 48. artikulua*rekin, **osasun-zerbitzuek lagin biologikoak eta beste ebidentzia batzuk jaso eta gordeko dituzte, biktimak salaketa jarri zein ez**¹³.

7.6.2. Duela gutxikoak ez diren sexu-erasoetan arreta ematea (10 egun baino gehiago igaro direnean)

Hauek dira kasuotan arreta ematen duten zerbitzuak: **Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Derioko osasun-zentroa, Urdulizko Ospitalea (14 urtetik beherakoei Gurutzetako Ospitalean) eta sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko 24 orduko zerbitzua (BFA).**

Horrelako egoeretan, lagin-bilketa bazter uzten da, baina, emakumeak nahi badu, **koordinazioa ezarriko da osasun-zerbitzuekin eta psikologia-zerbitzu espezializatuekin.**

Gero, lehenengo arreta horretatik aurrera, **jarraipena** egingo zaio.

Osakidetzaren **Sexu-indarkeriaren biktima diren 14 urtetik gorako emakumeen aurrean jarduteko osasun-arloko profesionalentzako gidaren** arabera, 10 egun baino gehiago igaro badira baina, kasuaren inguruabarrak baloratuta, lege-intereseko laginak har daitezkeela uste bada, eraso duela gutxikoa balitz bezala jardungo da. Halaber, prozeduran zalantzarik badago, auzitegiko medikuari galdetuko zaio.

¹³ *Sexu-indarkeriaren biktima diren 14 urtetik gorako emakumeen aurrean jarduteko osasun-arloko profesionalentzako gida* bat dator Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko Legearekin (irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa), besteak beste, auzitegiko medikua egoteari eta lagin biologikoak bildu eta gordetzeari dagokionez.

Hala ere, proba batzuk biltzeko, hobe ospitalera lehenbailehen joatea; kasu honetan, Urdulizko Ospitalera (14 urtetik beherakoek kasuan, Gurutzetako Ospitalera).

Nahiz eta emaitzarik onenak lagina lehenengo 72 orduetan biltzen denean egon, **hau gomendatzen dugu:**

- **Baginako lagina** 10 egun igaro arte biltzea, erasotua sexu-indarkeriaren ondoren egindakoak gorabehera (dutxatzea, txiza egitea, igeri egitea, sexu-harremanak edukitzea, jatea edo edatea).
- **Ahoko lagina hartzeko** epea 48 ordukoa da, gertakaritik zenbatzen hasita.
- **Uzkiko eta larruazaleko lagina**, berriz, 72 ordu igaro arte har daiteke.
- **Koitoaren osteko antisorgailua** emango da, sexu-erasotik 120 ordu baino gutxiago igaro badira.
- **Menderakuntza kimikoa egon delako susmoa** dagoenean ere, laginak lehenbailehen hartzea gomendatzen dugu, substantzia horiek ez dutelako ezaugarri organoleptikorik edukitzen (zaporerik, kolorerik, usainik ez), azkar jarduten dutelako, iraupen laburrekoak direlako eta dosi baxuetan aktiboak direlako.

8. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Erakunde sinatzaileen arteko **koordinazioa hobetzeko** eta protokolo honen jarraipena eta ebaluazio jarraitua egiteko helburuz, agente parte-hartzaileen Koordinazio Mahaiaarekin jarraituko dugu, haren funtzionamendua indartu eta ziurtatuz.

8.1. KOORDINAZIO TEKNIKOKO MAHAIA

DEITZAILEA ETA DINAMIZATZAILEA	EGINKIZUNAK
Txorierriko Mankomunitateko berdintasun-technikaria	<p>Mahaiairen bileren deialdia egitea eta akta idatzi eta, bileraren ondoren, mahaikideei eta mugimendu feministari bidaltzea.</p> <p>Protokoloari jarraipena egiten zaiola eta ondo funtzionatzen duela bermatzea.</p> <p>Urteko datuak biltzea eta datuei buruzko txostena idaztea.</p>



KIDEAK	EGINKIZUNAK
<p>1. Derioko Udalaren Kultura/ Herritarren Ata-leko arduraduna eta teknikaria.</p> <p>2. Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ).</p> <p>3. Uribeko ESiko indarkeria matxisten arloko erreferentea eta/edo Derioko osasun-zentroko erreferentea.</p> <p>4. Derioko Udalaren Udaltzaingoko ordezkaria.</p> <p>5. Erandioko Ertzain-etxeke Genero Indarke-riaren / Etxeko Indarkeriaren Ataleko er-tzain arduraduna.</p> <p>6. Derioko ikastetxeetako ordezkariak.</p> <p>7. Beharrezko ikusten den aldiro, beste entitate batzuetako edo gizarte-babeseke sistemetako profesionaleri deituko zaie (hezkuntza, GLFZ...).</p> <p>8. Mugimendu feminista mahaikidea izan ahalko da, beharrezko ikusten denean.</p> <p>9. Mahaia urtero elkartuko da mugimendu feministarekin eta LGTBIQA+ kolektiboa-rekin (baldin badago), komunikazio-kanalak eta elkarrekin parte hartzeko bi-deak ezartzeko.</p> <p>10. Urtean behin, alkatea eta Berdintasun-neko zinegotzia mahai honetan elkartuko dira</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Protokoloa garatzea. • Dagozkien lan-eremuetan dokumentua hedatzea. • Gainerako mahaikideekin arreta eta koordinazioa ebaluatzea. • Beren jardun-eremuetan datuak biltzea. • Protokoloko prozedurak eta funtzionamendua hobetzeko proposamenak egitea. • Prestakuntza-jarduerak sustatzea, detektatzen diren premia espezifikoaren arabera. • Protokoloaren ezarpen-esparruan sortzen diren ezustekoak konpontzea

Koordinazio Mahaiaren aldizkakotasuna eta deialdia

-**URTEAN BEHIN** elkartuko da, modu erregularrean, protokolo hau abian jartzen dene-tik aurrera.

-Beharrezkoa izanez gero, **bilera bereziak** egingo dira.

-Berdintasuneko teknikariak **15 egun lehenago** egingo du ohiko bileren deialdia, ida-tziz.

-**Edozein parte-hartzailek** egin ahalko du bilera berezi baten deialdia, premiaz.

-Mahai Teknikoaren bileren akta mugimendu feministari **bidaliko** zaio, beranduenez ere 15 eguneko epean. Aktek datu pertsonalak badauzkate, datuok kenduko dira, edo ezizenak erabili.

8.2. DATU-BILKETA ETA TXOSTENA¹⁴

Dokumentu honen erabakietan ezarritako konpromisoaren barruan, arreta etengabe hobetzeko eta indarkeria matxistaren aurrean koordinatzeko helburuz, urteko datuen txostena egingo da, berdintasun-teknikaria buru dela.

Datu-bilketa eta geroko txostena, gainera, egindakoaren gainean kontu emateko modu bat dira, hau da, biktimen ibilbideak identifikatzeko edota baliabide batek edo batzuek artatutako kasuen kopurua, gehien identifikatutako indarkeria motak, detekzioan izandako hutsuneak eta abar ikusarazteko bidea

Txostena egiteko, mekanismo hauek erabiliko dira:

- Zer aldagai sartu zehaztuko da, entitate bakoitzak bil ditzakeen datuak kontuan hartuta. Bestetik, estatistika-datuak jorratuko dira, ez pertsonalak, Datuak Babesteko Legeak ezarritakoarekin bat.
- Entitate bakoitzak hilero bidaliko dizkio datuak berdintasun-teknikariari.
- Teknikariak urtero egingo du txostena, eta emaitzak Koordinazio Mahaian aurkeztu eta aztertuko dira.

¹⁴ Txostena zehatzagoa izan dadin, protokolo hau martxan jarritakoan abiatuko den prozesuari jarraituko zaio



1. ERANSKINA. BESTELAKO BALIABIDEAK ETA PRESTAZIOAK

- **Telefonoz arreta emateko zerbitzua, 24 ordukoa (SATEVI): 900 840 111**

Zerbitzu hau autonomia-erkidegokoa da, eta doakoa. Eguneko 24 orduetan erantzuten du, urteko 365 egunetan. Aldibereko interpretazio-zerbitzua eskaintzen du, hainbat hizkuntzatarara, entzumen-desgaitasuna dutenentzat irisgarria.

Bestalde, zerbitzuak aholkua eta informazioa ematen dizkie edozein zalantza argitu nahi duten profesionaleri nahiz senide edo hurbilekoeri.

- **Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua. 944 025 050**

Zerbitzu honek urteko egun guztietan ematen die berehalako arreta dagokion lurralde historikoaren barruan jazotako gizarte-larrialdiko egoerei. Berehala artatzeko edo larrialdiko lehenengo harrera egiteko (zerbitzu honen esparruan, foru-erantzukizunekoak dira), premien behin behineko balorazioa egiten du lehenik, eta, gero, beste balorazio bat.

- **Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), doakoa. 900 400 028/ 944 016 487 (Bilbo)**

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren mende dago. Aurrez aurreko zerbitzua da, eta aurretiazko hitzordua behar da.

Legelarien, gizarte-langileen eta psikologoaren diziplina anitzeko taldeek eratzen dute, eta Zigorrek Betearazteko Zuzendaritzak delituen biktimei esku jartzen du.

- **Indarkeria matxistaren biktimei arreta psikologikoa emateko foru-zerbitzua. ESNATU**

Aurretiko hitzordua zenbaki honetan eskatzen da: 94 662 05 05.

Esku-hartzeetan, hauek sartzen dira:

- Diagnostikoa eta balorazioa.
- Banakako arreta psikologikoa: onuradunei laguntza psikologikoa emateko eta psikoterapiako banakako tratamenduak.

- Taldeko arreta psikologikoa, biktimei emandako banakako arreta psikologikoan esku-hartze osagarria egiteko.
 - Aztertutako kasuen jarraipena.
 - Aztertutako kasuen ebaluazioa.
- **Arreta soziojuridikoko foru-zerbitzua. 94 423 91 55**

Clara Campoamor elkarteak kudeatzen du zerbitzu hau, eta aholkularitza eta arreta soziojuridikoak ematen dizkie indarkeria matxistaren eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei. Elkartera zuzenean deituta eskatzen da hitzordua.

- **Sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko zerbitzua (BFA). 900 840 977**

Zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Informazioa eta aholkularitza 365 egunetan, 24 orduetan.
- Sexu-indarkeriako egoerei buruzko sentsibilizazioa.
- Bizkaian sexu-indarkeria zaintzeko sistema.
- Larrialdiko egoeretan esku hartzea 365 egunetan, 24 orduetan.
- Bide-laguntza.
- Banakako arreta psikologikoa.
- Aholkularitza soziojuridikoa.
- Gizarte-arreta.
- Garraioa.
- Aldi baterako ostatu-laguntza, larrialdiko egoeretan.

2. ERANSKINA. ZERBITZU BAKOITZEKO ARDURADUNEN DIREKTORIOA

Txorierriko Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ)

Maria Larrea, Derioko gizarte-laguntzailea
688 766 110 / mlarrea@txorierrri.eus
KULTUR BIRIKA Anboto plaza 5, Derio

Txorierriko Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzua

Anne Embeita, berdintasun-teknikaria
944 540 350 luz.: 117 / berdintasuna@txorierrri.eus
Txorierrri etorbidea 9, 48160 Derio

Derioko Udalaren Kultura Arloa

Jonathan Múgica, kultura-teknikaria
944 659 714 / jmugica@derio.eus

Derioko Udalaren Udaltzaingoa

Carlos Abad, Derioko Udaltzaingoko ofizialorde burua
944 541 019 luz.: 1031/ jefatura@derio.eus
Herriko plaza 3, 48160 Derio

Ertzaintza (Erandio)

Luis Martín, Erandioko Ertzain-etxean Indarkeria Matxistari /
Etxeko Indarkeriari Arreta emateko Zerbitzuko burua
eta Ikerketa Ataleko burua
944 063 444 / jinvestigacion_erandio@ertzaintza.eus
Gernika hiribidea 1, 48950 Alzaga, Bizkaia

Osakidetza

Ilu Cambero Serrano, Uribeko ESIko Berdintasuneko erreferentea
BERDINTASUNA.URIBE@osakidetza.eus

3. ERANSKINA. DATU PERTSONALAK LAGATZEKO BAIMENA

DATU PERTSONALAK LAGATZEKO ADOSTASUNA CESION DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Izen –abizenak Nombre-apellidos	
NAN - Pasaportea –Egoitza baimena - identifikaziorako beste dokumentu bat DNI-Pasaporte- Permiso de residencia- Otro documento de identificación	

Legezko ordezkaria edo arduraduna¹⁵ Representante legal o persona responsable

Izen –abizenak Nombre-apellidos	
NAN - Pasaportea – Egoitza baimena - identifikaziorako beste dokumentu bat DNI-Pasaporte- Permiso de residencia- Otro documento de identificación	
Harreman mota Tipo de relación	

<p>.....informazio hau eman didatela jakinarazten dut idazki honen birtartez:</p> <p>- Emandako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira: Indarkeria matxisten biktima diren emakumeei arreta emateko erakundeen arteko koordinazio-protokoloa, Derioko Udalaren titulartasuneko.</p> <p>Informazio hau baliagarria izango da datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak sortzeko, eta ikerketa-rako zein estatistiketarako erabiliko dute.</p>	<p>Por medio de este escrito hago constar expresamente que he sido informada por.....de que:</p> <p>-Los datos personales proporcionados se incorporarán a un fichero denominado Protocolo de coordinación interinstitucional para la atención a mujeres víctimas de violencias machistas cuya titularidad es del Ayuntamiento de Derio.</p> <p>Esta información servirá para crear políticas públicas basadas en datos objetivos al mismo tiempo que podrá ser utilizada para finalidades estadísticas y de investigación</p>
--	--

¹⁵ Beharrezkoa denean bakarrik bete - Complimentar solo en caso necesario

Eskubidea dut:	Así mismo, tengo derecho:
-Hemen agertzen diren datu batzuk nahiz guztiak erabiltzeko baimena ez emateko.	-A negarme a facilitar esta autorización de forma total o parcial.
-Baimena edo adostasuna ez emateak ekar ditzakeen ondorioak zein-tzuk diren azaldu didate.	-Se me ha informado así mismo de las consecuencias que esta negativa puede tener.
-Derioko Udalean datu hauek ikusteko, aldatzeko, baimena kentzeko eta ezadostasuna adierazteko.	-A ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante el Ayuntamiento de Derio.
Eta horrekin guztiarekin bat etorritik, baimena ematen dut Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera.	Y conforme a todo ello, otorgo libremente el consentimiento conforme a la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.
Derion 202__ko.....ean.	En Derio, a.....del 202__.
Sinadura	Firma

Esku-hartze integral eta koordinatutako nire datuak markatutako erakundeetara lagatzea baimentzen dut:

- Derioko Udaleko Gizarte Zerbitzuak
- Emakumeentzako arreta psikologikoaren zerbitzua
- Osasuna (Osakidetza)
- Derioko ikastetxeak
- Eusko Jaurtitzaren Segurtasuna (Ertzaintza)
- Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Politika Departamendua
- Bizkaiko Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua
- SAV Bizkaia
- Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegia (Bilbao) /Instrukzio Auzitegia
- Enplegua (Lanbide)
- Berdintasuna (Emakunde)
- Arartekoa
-Harrera Etxea
- Zerbitzu juridikoa
- Zerbitzu psikologikoa (Esnatu)
- Aldundiako Haurren Zerbitzua
- SEPE Enplegu Zerbitzu Publikoa
-Elkartea
-Abokatua
- Beste zerbitzu batzuk (berariaz identifikatu)

Marco las entidades a las que permito se cedan mis datos personales para una intervención integral y coordinada:

- Servicios Sociales de la Mancomunidad de Txorierri
- Servicio municipal de atención psicológica a mujeres
- Salud (Osakidetza)
- Centros escolares de Derio
- Seguridad del Gobierno Vasco (Ertzaintza)
- Diputación Foral de Bizkaia. Departamento de Política Social
- Servicio Foral de Urgencias Sociales de Bizkaia
- SAV Bizkaia
- Juzgado de Violencia sobre la mujer (Bilbao) /Juzgado de Instrucción
- Empleo (Lanbide)
- Igualdad (Emakunde)
- Ararteko
- Casa de acogida de....
- Servicio jurídico
- Servicio psicológico foral (Esnatu)
- Servicio de Infancia Foral
- SEPE Servicio Público de Empleo
- Asociación.....
- Abogada/o.....
- Otros servicios (identificar expresamente)

**BAIMEN INFORMATUA
ADINGABEAK EGONEZ GERO**

Nire alaba/semea 14 urte baino gutxiago izanda, haren ama/tutorea naizen aldetik, baimena ematen dut haren datu pertsonalak biltzeko eta aipatutako erakundeei lagatzeko, eta haiek aipatu ondorioetarako eta helburuetarako tratatzea baimentzen dut.

Eta horrela jaso dadin, eta bidezko ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut.

Data eta emakumearen sinadura

**CONSENTIMIENTO INFORMADO EN
CASO DE PRESENCIA DE MENORES
DE EDAD**

Siendo mi hija/o menor de 14 años, doy mi consentimiento como madre/tutora para la recogida de sus datos personales y su cesión a las entidades mencionadas, autorizando el tratamiento de los mismos a efectos y finalidad señalada.

Y para que conste y surta efectos oportunos, firmo la presente.

Fecha y firma de la mujer

***OHARRA:** Sortzen aholkularitza-enpresak egiaztatutako eskarmentu, ezagutza eta dokumentazioarekin egin da dokumentu hau. Halere, hemen zabaldutako edukiaren gaineko azken erantzukizuna protokolo hau sinatu duten erakunde eta zerbitzuena da soilik.